

LARUNBATEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2021ko MAIATZAREN 15a. 18:30.

LARUNBATA (2021/05/15)

Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da. Euri txikia egingo du, gauean. Norabide aldakorreko haize ahul-bizia ibiliko da, mendebal-osagaia nagusi izanik.

Temperaturak (°C)	
<i>Maximoa</i>	
Donostia	18
Bilbao	18
Gasteiz	18
Arrasate	20

IGANDEA (2021/05/16)

Zerua oso hodeitsu egongo da. Euri txikia egingo du, zenbait lekutan ertaina, bereziki Kantauri isurialdean eta egunaren lehen partean. Hego-mendebaldeko haize ahula ibiliko da, tarteka bizia; goizean Kantauri isurialdean mendebal/ipar-mendebaldera egingo du eta arratsaldean gainerako tokietan. Temperatura minimoak gutxi jaitsiko dira, bereziki barnealdean; azken orduetan neurtuko dira. Temperatura maximoak gutxi edo nahikoa jaitsiko dira.

Temperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	11	16
Bilbao	12	17
Gasteiz	8	16
Arrasate	9	16

ASTELEHENA (2021/05/17)

Zerua hodeitsu egongo da. Egunaren lehen partean euri txikia egingo du, batez ere Kantauri isurialdean eta ekialdean. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, bolada gogor batzuekin kostaldean eta arratsaldean barnealdeko mendi inguruetan. Temperatura gutxi jaitsiko da.

ASTEARTEA (2021/05/18)

Goizean lanbroa eta lainoa sortuko dira. Zerua tarteka hodeitsu egongo da, bereziki goizaldean eta gauean. Mendebal/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da; arratsaldean ipar-osagaira egingo du. Temperatura minimoak nahikoa jaitsiko dira eta maximoak gutxi edo nahikoa igoko dira.